

ZAIREKO GOBERNUAK ESAN DU ENFRENTAMENDU GOGORRAK IZAN ZIRELA ATZO KENGEN BI ALDEEN ARTEAN

Mobutu eta Kabila bigarren aldiz elkarrizketatuko dira gaur

Mobutu Sese Seko, Zaireko lehendakaria, eta Laurent-Desire Kabila, Kongo-Zaireren Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzako buruzagia, gaur elkarrizketatuko dira bigarren aldiz "Outeniqua" untzian. Nelson Mandela Hego Afrikako lehendakaria han izango da.

Agentziak / Lubumbashi-Kinshasa

ZAIREKO krisiari irtenbide negoziatua emateko azken aukera da gaurko bilera, Thabo Mbekik, Hego Afrikako Atzerri ministroak, joan den astelehenean adierazi zuenez. «Mobuturen eta Kabilaren arteko bilera egiten ez bada irtenbide militarra izango da aukera bakarra», azpimarratu zuen. Bai Hego Afrika, bai EEB-Bak baikor azaldu dira irtenbide baketsua bilatzeko, eta 32 urte boterean egon ondoren Mobutuk kargua utziko duelako.

Baina Kabilak zuzentzen dituen indarrek atzo garbi utzi zuten auziari «irtenbide politikoa» ematen ez bazaio, Kinshasa hiriburura sartuko direla indarrez, eta jakingo dutela «nor bilatu» han. Errebolitari tutsiek Zaireko Lubumbashi hirian duten kuarteleetik gogorarazi zuten, Kabilak argi esan zuen Mobutuk kargua uzten badu, haren segurtasuna eta sendiarena bermatuko dutela. Izan ere, erreboltarientzat irtenbide politikoa Mobutuk Lehendakaritza uztea da. «Mobutistak» bizitza politikotik aldentzea ere exijitzen du Kongo-Zaireren Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzak (KZAIDA), eta baita boterea zuzenean Kabilak eskuratzea ere.

Errebolitarien iritziz, Mobutu menderatua du «zortzi ukiezinak» eta «zortzi lapur handienak» deritzen agintari talde txiki batek. KZAIDAREN arabera, talde horri bururatu zitzaion Mobutuk lehendakari kargua hark aukeratuak ematea, eta Kabilaren esku ez uztea. Mama Bobi Landawa, Mobuturen emaztea, da



Laurent Monsengwo artzapezpikua, bizkarzainez inguratua, atzo Zairean heldu. JEAN MARCB OUJU / AP

taldeko burua. Askoren ustetan, harroputza eta autoritarioa da. Ehundaka milioi dolar dituztenak dira taldeko beste kideak.

Ustez atzeritarrak hiltzeko plana • KZAIDAK aurrera bidean jarraitzen du, eta atzeritarrei aholkatu die Zairetik alde egiteko, Mobuturen aldeko indarrek atzeritarrak hilko dituztela arrazoituta. Kabilaren indarren Lubumbashiko iturriek azaldu zuten, Mobutuk nazioartearen eskuhartzea lortu

nahi du Kabila zanpatzeko. «Iturri ugariak informazioa dugu Lehendakaritzaren Dibisio Bereziak eta Poliziak atzeritarren izenekin zerrendak osatu dituztela, gure indarrak hiriburura sartzean egon daitezkeen istiluetan haiek hiltzeko». Atzeritarrak hilez Brazavillen (Kongo) dauden EEBBetako, Frantziako, Belgikako, Erresuma Batuko eta Portugalgo 5.500 soldaduek esku hartuko dutela uste dute Mobuturen aldeko indarrek.

EEBBek eta Belgikako Gober-

nuak Zairen bizi diren herritarrei aholkatu zieten handik irteerako, badaezpada ere. Baina Zaireko Gobernuak iturriek ukatu egin zuten Gobernuak horrelako planik landu duela. «Garbi gera dila, Indar Armatek ez dute inoiz izan ez atzeritarrak ez nazionalak hiltzeko planik».

KZAIDAKo indarrek, hiribururako bidean, Mobuturen soldaduekin egin zuten topo orain astebebe Kenge hirian. Zaireko Gobernuak atzo adierazi zuen enfrontamendu gogorak izan zirela

bi indarren artean. «Enfrentamenduak oso gogorak dira, eta Zaireko Armada borrokan ari da fronteko lerroari eusteko», esan zuen Kin Kiey Mulumbak, Informazio ministroak.

Laurent Monsengwo artzapezpikua —diputatuek Legebiltzarreko lehendakari izendatu zuten Mobuturen ondorengo izateko— atzo Zairean itzuli zen Kongotik. Izendapena onartzen duen ala ez argitu behar zuen, baina lerro hauek idazteko orduan artean ez zegoen horren berririk. X

Europako agintariekin mintzatzen ari da Jeltsin, NATOri buruzko akordioaren bila

Javier Solana eta Jevgeni Primakov atzo bildu ziren Moskun gaia aztertzeko

Agentziak / Mosku

AZKEN orduetan Boris Jeltsin Errusiako lehendakariak telefonotik elkarrizketa ugari izan ditu Europako agintariekin, Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearen (NATO) hedatzearen gainean Errusiaren jarrera ezagut eta defendi dezaten. Izan ere, Errusiak hil honen 27an sinatu nahi du NATOrekin hitzarmena, baina ezadostasun puntu ugari daude erakunde militarrek Europa ekialdeko herrialdeetan egin nahi duen hedatzearen inguruan.

Javier Solana NATOko idazkari nagusia eta Jevgeni Primakov

Errusiako Atzerri ministroa atzo bildu ziren Moskun gai horretaz hitz egiteko, baina informazio hau idazterako garaian oraindik isilpean zegoen bileraren emaitza.

Besteak beste, Jaques Chirac Frantziako lehendakariarekin mintzatu zen Jeltsin telefonoz, eta Kremlinoko iturriek jakinarazi dutenez, bi agintariak bat etorri ziren hainbat puntutan. «Elkarrizketan ezadostasunak konpontzeko ahalegin handiagoa egin behar dela nabarmendu zuten batak zein besteak, NATOren zein Errusiaren segurtasun premiak beteko dituzten bide berriak urratu behar direla aipa-

tu zuten», adierazi zuten Kremlinetik.

Arlo militarrekoak dira NATOren eta Errusiaren arteko ezadostasun nagusiak. Europa ekialdeko kide berrien lurretan (Polonian, Txekiar Errepublikan eta Hungarian) NATOk armarik ez zabaltzea nahi du Errusiak, osterantzean, bere segurtasuna mehatxatua ikusten duelako. EEBBak, ordea, ez daude horrelako baldintzak onartzeko prest. Madeleine Albright EEBBetako Estatu idazkariak orain gutxi azaldu zuenez, NATOk ezin du hedatzea Errusiaren arabera erabaki. Arlo politikoan, berriz, akordioa ia erabatekoa da. X



NATOk bidalitako soldadu estatubatuarrek Sarajevon.

PETER ANDREWS-REUTER